



REAL FEDERACIÓN
ESPAÑOLA DE KARATE Y D.A.



DEPARTAMENTO NACIONAL DE PARA-KARATE

LEHIAKETA-ARAUDIA PARAKARATEA 2023

EDUKIA

1. ARTIKULUA: PARAKARATE-LEHIAKETA	3
2. ARTIKULUA: DIZIPLINAK, KATEGORIAK eta KIROL-KLASEAK	3
3. ARTIKULUA: LEHIAKETA-EREMUA	5
4. ARTIKULUA: UNIFORMEA ETA EKIPAMENDU OFIZIALA	6
5. ARTIKULUA: KATA-LEHIAKETAREN ANTOLAKETA	13
6. ARTIKULUA: EPAILEEN PANELA	17
7. ARTIKULUA: PUNTUAZIOA	18
8. ARTIKULUA: NORGEHIAGOKEN OPERAZIOA	22
9. ARTIKULUA: ERREKLAMAZIO OFIZIALA	23
10. ARTIKULUA: ARAUEN TOKIKO EGOKITZAPENA	26
11. ARTIKULUA: LEHIAKIDEEN IZEN-EMATEA ETA AKREDITAZIOA	26
12. ARTIKULUA: DOPINAREN AURKAKO ARAUAK ETA DOPIN-KONTROLA	27
ERANSKINAK	
1. ERANSKINA: KATA-ZERRENDA OFIZIALA	28
2. ERANSKINA: KATAKO ERREKLAMAZIO-INPRIMAKIA	29

1. ARTIKULUA: PARAKARATE-LEHIAKETA

1.1 Parakaratea desgaitasuna duten kirolarientzako karateko lehiaketa-modalitatea da. Parakarate-lehiaketaren Araudia formulatu da kirolarien segurtasuna zaintzeko eta estandar garden eta sendoen bitartez bidezko txapelketa sustatzeko.

Arauk aplikatzekoak eta bete beharrekoak dira kirolarientzat, entrenatzaileentzat, sailkapenetako langileentzat, epaileentzat eta Espainiako Karateko eta Kideko Diziplinen Errege Federazioak (aurrerantzean, RFEK-DA) aitortutako edozein parakarate-lehiaketa antolatzen eta/edo horietan parte hartzen duten bestelako laguntza-langile guztientzat.

1.2 Honako arau eta erregulazio hauek nahitaez bete beharrekoak dira RFEK-DAREN parakarate-ekitaldi ofizial guztietan, bai eta RFEK-DAk aitortutako beste parakarate-lehiaketa batzuetan ere. Araudi honen arauak betetzen ez dituen edozein lehiaketa ezin da aitortu RFEK-DAREN parakarate-lehiaketa gisa.

2. ARTIKULUA: DIZIPLINAK, KATEGORIAK eta KIROL-KLASEAK

2.1 DIZIPLINA ETA KATEGORIA OROKORRAK

2.1.1 Parakarate-lehiaketetan Banakako Kata Diziplinan lehiatzen da. RFEK-DAk lau kategoria orokor jasotzen ditu parakaratean:

- a) Ikusteko desgaitasuna duten kirolariak (K10)
- b) Adimen-desgaitasuna duten kirolariak (K20)
- c) Desgaitasun fisikoa duten kirolariak gurpil-aulkian (K30)
- d) Desgaitasun Fisikoa duten kirolariak zutik (K40)

2.1.2 Kategoria orokor horiek kirol-klaseetan banatzen dira, kirolariaren Desgaitasunaren Sailkapen Funtzionalaren arabera (RFEK-DAREN Parakarateko Sailkapenaren Araudian deskribatzen den bezala), eta Puntu Estren bidez konpentsatzen da puntuazioa, kirolariaren desgaitasun-mailaren arabera.

2.1.3 Desgaitasun-mota bat baino gehiago dituzten kirolariak kirol-klase batean bakarrik lehiatu ahal izango dira txapelketetan. Kirolariak izena emanda dauden kategoriako desgaitasun-irizpideen arabera sailkatuko dira zehatz-mehatz.

2.1.4 Parakarateko sailkapena honako hauek esleitzean datza: kirol-klasea, sailkapenaren egoera (berria, berrikusgarria, berretsia edo ez-hautagarria) eta K10, K30 eta K40 kategorietako kirolariei emandako puntuazio estra, Kata egitean beren desgaitasunagatik duten mugaren arabera. Errendimenduan duten muga hori RFEK-Daren Sailkapen Taldeak ebaluatuko du sailkapen-saioan zehar. K10, K30 eta K40 kategorietan, Sailkapen Taldeak konpentsazio-puntu batzuk emango dizkio kirolariari; gero, epaileen azken puntuazioari gehituko zaizkio puntu horiek, puntuazioaren atalean aurrerago azaltzen den bezala.

Oraingoz eta WKFK martxan jarri arte, K20 kirol-klaseari konpentsazio-puntuazioa ematen jarraituko du RFEK-DAK

(Sailkapenari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu "RFEKren Parakarateko Sailkapen Araudia")

2.2 PARAKARATEKO KIROL-KLASEAK

2.2.1 Kirol-klaseak lehiaketa-azpikategoriak dira, desgaitasun-motaren arabera banatzen direnak; horrela, kirolaria lehiatu ahal izango da, duen mugaren arabera, bidezko exekuzioa egiteko, eta, aldi berean, ahalmen tekniko eta atletikorik handiena adierazteko aukerarik onena ematen dion klasean. RFEK-Daren kirol-klaseak honako hauek dira, adinaren eta generoaren (gizonezkoa eta emakumezkoa) arabera banatuta:

K11 – KATA IKUSTEKO DESGAITASUN ARINAREKIN (gizonezkoa eta emakumezkoa)

	Benjaminetik haurretara	Gazteak	Kadeteak	Juniorrak	21etik	Seniorra	Beteranoak
Adina	<=11	12 eta 13	14 eta 15	16 eta 17	18,19,20	>=16	>=35
Aurpegi-babesa erabiliko dute, Kata zutik egingo dute eta EZIN izango dute Kata errepikatu							

K12 – KATA IKUSTEKO DESGAITASUN LARRIAREKIN - ITSUTASUNAREKIN (gizonezkoa eta emakumezkoa)

	Benjaminetik haurretara	Gazteak	Kadeteak	Juniorrak	21etik	Seniorra	Beteranoak
Adina	<=11	12 eta 13	14 eta 15	16 eta 17	18,19,20	>=16	>=35
Aurpegi-babesa erabiliko dute, Kata zutik egingo dute eta EZIN izango dute Kata errepikatu							

K21 – KATA ADIMEN-DESGAITASUNAREKIN (gizonezkoa eta emakumezkoa)

	Benjaminetik haurretara	Gazteak	Kadeteak	Juniorrak	21etik	Seniorra	Beteranoak
Adina	<=11	12 eta 13	14 eta 15	16 eta 17	18,19,20	>=16	>=35
Kata zutik egingo dute eta Kata errepikatu ahal izango dute							

K22 – KATA ADIMEN-DESGAITASUNAREKIN (gizonezkoa eta emakumezkoa)

	Benjaminetik haurretara	Gazteak	Kadeteak	Juniorrak	21etik	Seniorra	Beteranoak
Adina	<=11	12 eta 13	14 eta 15	16 eta 17	18,19,20	>=16	>=35
Kata zutik egingo dute eta Kata errepikatu ahal izango dute							

K23 – KATA AEN ADIMEN-DESGAITASUNAREKIN (gizonezkoa eta emakumezkoa)

	Benjaminetik haurretara	Gazteak	Kadeteak	Juniorrak	21etik	Seniorra	Beteranoak
Adina	<=7tik 11ra	12 eta 13	14 eta 15	16 eta 17	18,19,20	>=16	>=35
Kata zutik egingo dute eta Kata errepikatu ahal izango dute							

K30 – KATA DESGAITASUN FISIKOAREKIN GURPIL-AULKIAN (gizonezkoa eta emakumezkoa)

	Benjaminetik haurretara	Gazteak	Kadeteak	Juniorrak	21etik	Seniorra	Beteranoak
Adina	<=11	12 eta 13	14 eta 15	16 eta 17	18,19,20	>=16	>=35
Kata gorpil-aulkian egingo dute, eta EZIN izango dute Kata errepikatu							


Edad

K40 – KATA DESGAITASUN FISIKOAREKIN ZUTIK (gizonezkoa eta emakumezkoa)

	Benjaminetik haurretara	Gazteak	Kadeteak	Juniorrak	21etik	Seniorra	Beteranoak
Adina	<=11	12 eta 13	14 eta 15	16 eta 17	18,19,20	>=16	>=35
Kata zutik egingo dute eta EZIN izango dute Kata errepikatu							

3. ARTIKULUA: LEHIAKETA-EREMUA

- 3.1 Lehiaketa-eremua karratu barrubigun matea izango da, WKFK onartutakoa, zortzi metroko aldeak dituena (kanpotik neurtuta). Bi metroko segurtasun-eremu bat egongo da alde bakoitzean. Lehiaketa-eremu goratua erabiltzen denean, segurtasun-eremuak beste metro bat (1) izango du alde bakoitzean.
- 3.2 Lehiaketa-eremuan ez da egongo pasatzea edo mugitzea eragozten duen inolako oztoporik.
- 3.3 Epaileak eta softwareko teknikaria bata bestearen ondoan eseriko dira lehiaketa-eremutik kanpoko mahai batean eta lehiakideen aurrean. Epaile Burua (1. epailea) softwareko teknikariarengandik ahalik eta gertuen jarriko da. Teknikaria mahaiaren amaieran eseriko da.
- 3.4 Epaile eta softwareko teknikari guztiak lerrokatuta eseriko dira mahai ofizialaren aurrean, ahal bada mahai bakar batean.
- 3.5 Ez du publizitate-panelik, hormarik, zutaberik eta abar egon behar segurtasun-eremuaren kanpoko perimetrotik metro bat baino gutxiagora.
- 3.6 Entrenatzaileak eta laguntzaile pertsonalak segurtasun-eremutik kanpo eseriko dira, tatamiaren beren aldeetan mahai ofizialari begira. Lehiaketa-eremua goratuta dagoenean, entrenatzaileak goratutako eremutik kanpo jarriko dira, beren lehiakideen atzean.
- 3.7 Lehiaketa nahiz dominarako norgehiagokak plataforma goratu batean egiten ari badira edo kirolarien segurtasunagatik, laguntzaileak (entrenatzaileak edo laguntzaile pertsonalak, beharrezkoa bada) kirolaria plataformara igoko du eskailera edo arrapala baten bidez, eta lehiaketa-perimetrora eramango du. Norgehiagokaren ondoren, laguntzaileak jaitsiko ditu lehiakideak plataformatik. Kirolaria entrenatzaileak bakarrik gidatzen badu, entrenatzailea plataforman eseriko da kirolariaren ondoan, eta behealdeko entrenatzailearen aulkia hutsik geratuko da.



4. ARTIKULUA: UNIFORMEA ETA EKIPAMENDU OFIZIALA

4.1 EPAILEAK

4.1.1 Hau izango da uniforme ofiziala:

- Jaka urdin iluna, botoi sinpleak dituena (kolore-kodea: 19-4023 TPX).
- Galtza gris argi lisoak, azpildurarik gabeak (kolore-kodea: 18-0201 TPX).
- Mahuka motzeko alkandora zuri bat.
- Galtzerdi lisoak, urdin ilunak edo beltzak, eta lokarririk gabeko zapata beltzak, lehiaketa-eremuan erabiltzeko.
- Gorbata ofiziala, orratzik gabe.
- Txilibitu beltz bat, nabarmentzen ez den lokarri zuri batekin.

4.1.2 Honako osagarri gehigarri hauek onartzen dira:

- Ezkontza-eraztun sinple bat.
- Izaera erlijiosoko burukoa (borondatezkoa), WKFK onartutakoa.
- Urkila bat eta nabarmentzen ez diren belarritako batzuk.
- Ilea sorbaldetatik kenduta eraman behar da, eta makillajeak ez du nabarmendu behar.
- Ezin dira erabili 4 cm baino gehiagoko takoiak uniformearekin.

4.1.3 Epaileek uniforme ofiziala erabili behar dute torneo, informazio-saio eta ikastaro guztietan.

4.1.4 Kirol anitzeko ekitaldietarako, baldin eta kirol-arropa ematen bada epaileentzako uniforme gisa ekitaldi hori ordezkatzeko duen tokiko antolamendu-batzordearen (LOC) kargura, epaileen uniforme ofizialaren ordezkariak uniforme berezi hori erabili daitezke, betiere ekitaldiaren antolatzaileak idatziz eskatzen hala eskatzen badiu WKFri eta hark formalki baimentzen badu.

4.1.5 Arbitraje-zuzendariak hala baimentzen badu, epaileek jake kendu ahal izango dute.

4.1.6 Arbitraje Batzordeak edo Arbitrajeko zuzendari nazionalak atzera bota dezakete araudi hau betetzen ez duen edozein epailearen parte-hartzea.

4.2 LEHIAKIDEAK

4.2.1 WKF/RFEK-k onartutako karategi zuri bat eraman behar dute lehiakideek, zerrenda, ertz eta brodatu pertsonalik gabe, WKF/RFEK-k berariaz baimendutakoaz gain (lehiaketaren buletinean zehaztuko da):

- a) RFEK-Daren ekitaldi ofizial guztietarako, karategiak markaren brodatua eduki ahal izango sorbaldean, gorria edo urdina, zozketaren arabera, edo brodatu zuriekin ere erabili ahal izango da, orain arte bezala.
- b) Autonomia-erkidegoaren armarrria edo bandera bularraren ezker aldean eramango da, jakaren gainean, eta ezingo da izan guztira 12 x 8 cm baino handiagoa.
- c) Karategiak fabrikatzailearen jatorrizko etiketak bakarrik eraman ditzake.
- d) Gainera, erakundeak hornitutako dortsal identifikagarri bat eramango da bizkarrean.
- e) Lehiakideek WKF/RFEK-k onartutako gerriko gorria (AKA) edo urdina (AO) –zozketaren arabera– eraman behar dute, fabrikatzailearen etiketaz bestelako brodatu pertsonalik, publizitaterik edo markarik gabe. Ezin dira maila-gerrikoak erabili Kataren exekuzioan.
Oharra (RFEK): izena brodatuta eraman ahal izango da gerrikoan
- f) Gerriko gorriek eta urdinek 5 cm inguruko zabalera eta korapiloaren alde bakoitzean 15 cm sobera izateko nahikoa luzera izan behar dute, baina izterraren luzeraren 3/4tik pasatu gabe.
- g) Jakak, behin gerrikoa gerriaren inguruan lotu ondoren, aldakak estaltzeko adinako luzera izan behar du gutxienez eta, gehienez ere, izterraren luzeraren 3/4ra iritsi behar du.
- h) Emakumezko lehiakideek kamiseta zuri bat eraman dezakete karategiko jakaren azpitik.
- i) Ezin da erabili begizta egiteko zerrendarik gabeko jakarik. Jakaren zerrendek lotuta egon behar dute norgehiagokaren hasieratik.
- j) Jakaren mahukun gehieneko luzerak ez du eskumuturra gainditu behar, eta ez du besurrearen erdia baino motzagoa izan behar.
- k) Jakaren mahukak ezin dira bildu.

- I) Galtzek gutxienez zangosagarraren 2/3 estaltzeko adinako luzera izan behar dute, eta ez dute orkatila estali behar. Galtzak ezin dira bildu.



- 4.2.2 RFEK-Daren Batzorde Eragileak baimena eman dezake onartutako babesleen etiketak edo marka erregistratuak erakusteko.
- 4.2.3 Lehiakideek WKFK onartutako izaera erlijiosoko buruko jantzi bat (borondatezkoa) erabili ahal izango dute: ilea estaltzen duen zapi beltz lisoa, eztarriko eremua estali gabe utziz.
- 4.2.4 Lehiakideek azazkal motzak eraman behar dituzte, eta ez dute metalezko edo bestelako objekturik erabili behar. Ortodontziaren erabilera arbitroak eta txapelketako mediku ofizialak onartu behar dute. Lehiakideak bere gain hartzen du edozein lesioren erantzukizun osoa.
- 4.2.5 Kirol-betaurrekoak adimen-desgaitasuna duten eta gurpil-aulkia erabiltzen duten lehiakideentzat bakarrik daude baimenduta. Betaurreko guztiek buruan uhal batekin helduta egon behar dute, eta beren lekuan irmo egon behar dute beti Kataren exekuzioan zehar, erori gabe. Kirol-betaurrekoen erabilera Parakarate Batzordeak onartu behar du. Ukipen-lenteak erabil daitezke, lehiakidearen kontura eta arriskua hark onartuta.

- 4.2.6 Lehiakideek ilea garbi eraman behar dute. Ilearn luzerak ez du Kata egitea oztopatu behar. Ezin da Hachimakia (kopetaldeko zerrenda) erabili.
- 4.2.7 Debeekatuta dago ilerako orratz edo pintza metalikoak erabiltzea. Debeekatuta daude zintak eta alezko edo bestelako apaingarriak. Nabarmetzen ez den goma bat edo bi erabil daitezke, motots bakar bat eginez ileari eusteko.
- 4.2.8 Debeekatuta dago baimendu gabeko artikulua, jantziak edo ekipoak erabiltzea.
- 4.2.9 Lesio baten ondorioz bendajeak, bigungarriak edo bestelako laguntzak erabiltzea Epaile Buruak onartu behar du, txapelketako medikuaren gomendioaren arabera.
- 4.2.10 Baimendu gabeko ekipoarekin edo arauz kanpoko karategiarekin tatamian agertzen diren lehiakideei minutu bat emango zaie hura zuzentzeko, eta entrenatzaileak automatikoki galduko du norgehiagoka horretan entrenatzaile gisa jarduteko eskubidea.

4.3 ENTRENATZAILEAK ETA LAGUNTZAILE PERTSONALAK

- 4.4.1 Entrenatzaileek eta laguntzaile pertsonalek beren autonomia-erkidegoko federazioaren (edo klubaren, liga nazionaletan) txandal ofiziala jantzi beharko dute une oro torneoan zehar, eta beren kredentzial ofiziala erakutsi beharko dute, RFEK-DAREN Ekitaldi Ofizialetako dominarako norgehiagoketan izan ezik. Horietan, gizonezko entrenatzaileek jantzi iluna, alkandora eta gorbata jantzi behar dituzte, eta emakumezko entrenatzaileek, berriz, kolore iluneko soineko bat, jaka/galtzak edo jaka/gona konbinazioa erabiltzea aukeratu dezakete.
- 4.4.2 Honako jantzi gehigarri hauek baimentzen dira:
- a) Ezkontza-eraztun simple bat.
 - b) WKFK onartutako izaera erlijiosoko buruko jantziak (borondatezkoak).
- 4.4.3 RFEK-DAREN Lehiaketa Gainbegiraleak edo Batzorde Antolatzaileak aukera eman diezaiekete entrenatzaileei txandalaren jakaren orde zuzen beren autonomia-erkidegoko federazioaren (edo klubaren, liga nazionaletan) kamiseta ofiziala edo kolore lisoko kamiseta bat erabiltzeko, betiere brodatuak eta logotiporik gabea.
- 4.4.4 Ustekabeko edozein gorabehera gertatuz gero, hala nola sailkapen-proba gehigarriak, dopinaren aurkako kontrola, sutea edo larrialdiko beste ebakuazio-beharren bat, entrenatzaileak arduratuko dira zuzenean kirolariak segurtasunez erretiratzeaz.
- 4.4.5 Norgehiagokak edo lehiaketak plataforma goratu batean egiten badira, entrenatzaileak edo laguntzaileak gidatu ahal izango du lehiakidea, beharrezkoa bada, plataformaren gainera.

4.4.6 Entrenatzaileek eta laguntzaileek ziurtatu behar dute lehiakidea une oro lagunduta egongo dela lehiaketan zehar.

Irudia (ezin da kopiatu): **Publizitatea jartzeko kokalekua**

4.4.7 Entrenatzaileek eta laguntzaileek ziurtatu behar dute lehiakideek badutela behar izan dezaketen edozein sendagai.

4.4 LEHIAKIDEEN EKIPAMENDUA ETA ZERBITZU MEDIKOKO ANIMALIAK

4.4.1 Aitortutako lehiaketa guztiei aplikatzen zaie kirol-ekipamenduari buruzko Nazioarteko Batzorde Paralinpikoaren politika, NBParen beraren eskuliburuan deskribatzen dena. Onartutako ekipoak antzeko ezaugarriak izan behar ditu kirol-klase bereko lehiakideentzat (zenbait kasutan, segurtasuna emateaz gain), lehiakideen eta haien egiazko gaitasun fisiko-teknikoen arteko konparazio zuzena egin ahal izateko.

4.4.2 Onartutako osagarriak hauek dira: aurpegi-babesak (K11 eta K12 klaseak), kirol-betaurrekoak (K21, K22, K23, K30 eta K40 klaseak). Laguntza fisikorako erabiltzen diren bastoiak, makuluak eta bestelako ekipoak ez daude baimenduta sailkapenean eta lehiaketan, salbu eta protesiak edo ortesiak K40 kategorian.

4.4.3 AURPEGI-BABESAK

4.4.3.1 K11 eta K12 klaseetako lehiakideek Itsuentzako Kirolen Nazioarteko Federazioak (IBSA) onartutako betaurreko opakuak erabili behar dituzte.

TRANSIZIO-ALDIA: 2023-1-1 – 2023-12-31

4.4.3.2 Aurpegi-babesek kolore ilun sotila izan behar dute (grisa, urdina, beltza), eta ez dute eraman behar babesleen edo fabrikatzaileen logotiporik edo markarik.

4.4.3.3 Aurpegi-babesek ere tinko kokatuta egon behar dute kirolariaren aurpegian eta buruan, elastiko doigarri baten bidez, edo Kata exekutatu bitartean lasaitu edo askatu behar ez den uhal baten bidez.

4.4.3.4 Aurpegi-babes guztiak RFEK-DAREN Parakarate Batzordeak onartu behar ditu lehiaketaren aurreko sailkapen-saioan zehar.

4.4.4 GURPIL-AULKIAK

4.4.4.1 Lehiaketan erabilitako gurpil-aulkiak sailkapen-saioan ere erabili behar dira. Sailkapen-saioan erabilitakoa ez den gurpil-aulki bat erabiltzen bada lehiaketan, lehiakidea deskalifikatu egingo da.


4.4.4.2 Lehiaketan erabilitako eusteko uhalak, halaber, sailkapen-saioan ere erabili behar dira. Sailkapenean uhalik erabiltzen ez bada eta ondoren lehiaketan erabiltzen bada edo sailkapenean erabilitakoa ez den uhala erabiltzen bada, lehiakidea deskalifikatu egingo da.

4.4.4.3 Kataren erakustaldi atletikoa arazorik gabe egiteko aukera ematen duten gurpil-aulki mota guztiak onartuko dira. Honako mota eta aldaera hauek bakarrik debekatzen dira:

- a) Taka-takak.
- b) Eragintza elektrikoko euskarria duten gurpil-aulkiak (adibidez, gurpilen kuboetan integratutako motor elektrikoak).
- c) Gurpil-aulki elektrikoak.

4.4.4.4 Gurpil-aulkiaren ezaugarriak:

- a) Oin-euskarrien behealdeak tatamiari kalterik ez egiteko diseinatuta egon behar du.
- b) Segurtasun-arrazoiak direla-eta, gurpil-aulkiaren atzealdeari lotutako iraulketen aurkako gurpil bat edo bi baimentzen dira. Markoari edo atzeko ardatzari lotu eta gurpil-aulkiaren atzealdean jar daitezke; gurpil-aulkiari gehitu dakizkioke, gurpilek sarritan –edo, are gehiago, etengabe– lurra ukitzen baitute. Gurpilen arteko zabalerak bi gurpil handien barrualdeko distantziara mugatu behar du. Kirolaria gurpil-aulkian eserita dagoenean gidatze-posizio aurreratu batean, gurpilen behealdearen eta tatamiaren artean onartutako gehieneko distantzia 2 cm-koa da. Iraulketen aurkako gurpilek ez dute irten behar gurpil mugikorren atzeko puntuak ukitzen dituen plano bertikaletik harago. Lerrokadura hori ebaluatu behar da gurpil-aulkia aurrerantz gidatzeko posizioan egonik.
- c) Atzeko gurpil handiek 18 graduko inklinazioa izan dezakete gehienez.
- d) Gurpil handiak edozein koloretakoak izan daitezke, baldin eta ez badute tatamia zikintzen edo kaltetzen. Ez da onartzen tatamia markatzen duen pneumatikorik edo gurpilik. Salbuespenak egin daitezke, baldin eta markak erraz eta azkar ken daitezkeela froga badaiteke.
- e) Lurzorutik kuxinaren –halakorik erabiltzen bada– goialdera arteko gehieneko altuera edo eserlekuaren plataformaren –kuxinik erabiltzen ez denean– goialdera arteko altuera ezingo da izan 65 cm baino handiagoa.
- f) Eskuzko uztai batek egon behar du gurpil bakoitzean.
- g) Ez da onartzen gurpil-aulkian direkzio- edo engranaje-gailurik egotea.



- 4.4.4.5 Onartzen dira gurpil-aulkian dauden kirolarien zangoei (K30) eusteko uhalak. Zuriak eta logotiporik gabeak izan behar dute, eta elastikoa edo luzagarria ez den material batez egindakoak izan behar dute. Gehienez 3 uhal erabil ditzakete; uhal horiek orkatilen eta aldakaren artean jarri behar dira. Ezin da finkatu gorputzaren goialdea.
- 4.4.4.6 Babesleen logotipo bat baino gehiago baimenduta daude araudi honetan zehaztutako kokalekuetan eta neurrietan.
- 4.4.4.7 Babesleen logotipo eta publizitate bat baino gehiago jar daitezke gurpil nagusietan. Logoak erradioek osatzen duten zirkuluaren tamainaraino har dezake. Bi gurpiletan jar daitezke logoak.
- 4.4.4.8 Debekatuta dago arrazoi politiko edo erlijiosoak sustatzen edo iragartzen dituen edo legez kontrako ideiak edo kirolaren ideia faltsuak sustatzen dituen edozein identifikazio, logotipo edo elementu. Halaber, guztiz debekatuta dago lehiaketaren, RFEK-DAREN edo edozein tokiko batzorde antolatzaile, joko nagusien batzorde antolatzaile (hala nola Batzorde Olimpiko Nazionala/Nazioartekoa edo Batzorde Paralimpiko Nazionala/Nazioartekoa), federazio nazional edo lehiakideren nortasunari edo izen onari kalte egiten dion edukia. Debekatuta dago, halaber, kirolaren edo kirolarien osotasunari kalte egiten dioten produktuen publizitatea (adibidez, tabakoarena edo alkoholarena) edo Dopinaren kontrako Mundu Agentziaren Kodea edo tokiko legeak urratzen dituzten produktuen publizitatea egitea.

4.4.4.9 RFEK-DAK ahalmen orokorra izango du kirolaren eta kirolarien osotasunari kalte egiten dion edo lehiaketaren irudi negatiboa ematen duen edozein publizitate-moduren aurka egiteko. Kasu horiek guztiak Diziiplina Batzordeari igorriko zaizkio.

4.4.4.10 Debekatuta dago babesleen logotipoak edo iragarkiak jartzea gurpil-aulkiko toki hauetan:

- a) Bizkarra
- b) Alboko babesak edo beso-euskarriak c) Oin-euskarria
- d) Gurpilak
- e) Armazoia

4.4.5 ZERBITZU-ANIMALIAK

4.4.5.1 Zerbitzu-animaliak desgaitasuna dutenei laguntzeko eta berariazko eginkizunak betetzeko entrenatutako animaliak dira; esate baterako, itsu-txakurrak edo konbultsioak edo hipogluzemia detektatzeko entrenatutako txakurrak.

4.4.5.2 Baimenduta dago zerbitzu medikoko animaliek kirolariei lehiaketa-esparruan laguntzea, baina bizitza arriskuan jar dezaketen baldintzak detektatzeko trebatutako eta ziurtatutako animaliak bakarrik egon ahal izango dira txapelketa-eremuaren kanpoko perimetroan (bertan egon beharko dute interferentziarik eragin gabe). Zerbitzu-animaliak ezin dira sartu lehiaketa-eremura. Ez dira terapiako edo laguntza emozionaleko animaliak edo maskotak onartuko lehiaketa-eremuan edo bertako perimetroan, baldin eta zerbitzu medikoko animaliak ez badira.

5. ARTIKULUA: KATA-LEHIAKETAREN ANTOLAKETA

5.1 OROKORRA

5.1.1 Kata ez da dantza- edo antzerki-ikuskizuna. Balio eta printzipio tradizionalak gorde behar ditu. Errealista izan behar du borrokari dagokionez, eta kontzentrazioa, boterea eta inpaktu potentziala erakutsi behar ditu bere tekniketan. Indarra, potentzia eta abiadura erakutsi behar ditu, baita harmonia, erritmoa eta oreka ere.

5.1.2 Lehiakideek une oro bete behar dituzte Epaile Buruak emandako jarraibideak.

5.2 LEHIAKETAREN FORMATUA

5.2.1 Taldeak kanporatzeko, 8 lehiakideko sistema erabiltzen da parakarate-lehiaketan.

5.2.2 Banakako Kata-lehiaketetan, banakako exekuzioak egiten dira, gizonezkoak eta emakumezkoak banatuta.

5.3 SERIEBURUAK ETA EXEKUZIO-ORDENA

5.3.1 Lehiaketa nazionaletan serieburuak hautatzeko eta banatzeko, RFEK-k Kata-lehiaketarako ezarritako irizpideak jarraituko dira.

5.3.2 Sistema elektronikoak ausaz zehaztuko du exekuzio-ordena talde barnean hasierako txandaren ondoren, baina dominarako norgehiagokak kanpoan utzita.

5.4 EGIN BEHARREKO KATA JAKINARAZTEA

5.4.1 Entrenatzailearen erantzukizun eskusiboa da –edo, entrenatzaileak ezean, lehiakidearena– mezulariari jakinarazitako Kata txanda horretarako egokia den ala ez ziurtatzea.

5.4.2 Egiteko erregistratutako Kataren zenbakia eta izena bat ez badatoz, zenbakiak izango du lehentasuna, WKFren Kata-zerrenda ofizialaren arabera.

5.5 GARAIZ EZ AURKEZTEA

5.5.1 Deialdira aurkeztzen ez diren edo ez jarraitzea erabakitzen duten lehiakideak kategoria horretatik deskalifikatu (KIKEN) egingo dira.

5.6 8 LEHIAKIDEKO TALDEEN KANPORAKETA-SISTEMA

5.6.1 Lehiakideen kopuruaren arabera zehaztuko da talde-kopurua, kanporaketa-txandak errazteko. Taula honetan laburbiltzen da talde-kopurua, lehiakideen kopuruaren arabera:

Lehiakideen kopurua	Talde-kopurua	Irabazteko egindako Kata-kopurua	Aurreko bi Kata nahitaezko	FINALEKO norgehiagok a	Brontze-norgehiagoka
1 edo 2	1	2	BA	EZ	EZ
3	1	2	EZ	BAI	EZ
4	2	2	EZ	BAI	EZ
5 - 10	2	2	EZ	BAI	BA
11 - 24	2	3	EZ	BAI	BA
25 - 48	4	4	EZ	BAI	BA
49 - 96	8	4	EZ	BAI	BA
97 - 192	1	5	EZ	BAI	BA
193 edo	3	6	EZ	BAI	BA

- 5.6.2 8 lehiakideko taldeak (11 baino gutxiagoko edo 96 baino gehiagokoentzat azaldutako salbuespenekin) egingo dira. Txanda bakoitzean, taldeko lehiakideen kopurua 4ra murriztuko da –hurrengo txandara pasatuko dira–, 2 lehiakide-talde bakarrik geratu arte. Ondoren, bi taldeetako bakoitzean puntuaziorik altuena duten lehiakideak elkarren artean lehiatuko dira lehenengo postua lortzeko (galtzaileak bigarren postua lortuko du), eta bi taldeetako bakoitzean bigarren puntuaziorik altuena duten lehiakideak beste taldeko hirugarren puntuaziorik altuenekoaren aurka lehiatuko dira, bi hirugarren postuetan geratzeko (brontzezko dominak).
- 5.6.3 Lehiakide 1 edo 2 egonez gero, 2 Kata-txanda egingo dira, eta horien emaitzen baturak zehaztuko ditu 1. eta 2. postuak.
- 5.6.4 3 lehiakiderekin, talde bat osatuko da lehen txandarako; puntuazio handieneko biak 1. eta 2. postuetan geratzeko lehiatuko dira, eta 3. kirolaria automatikoki 3. postuan geratuko da (brontzezko domina).
- 5.6.5 4 lehiakiderekin, bi talde osatuko dira lehen txandarako; bi irabazleak 1. postuan geratzeko lehiatuko dira (urrezko domina); bi galtzaileak, berriz, zuzenean 3. postuan geratuko dira (brontzezko dominak).
- 5.6.6 5-10 lehiakiderekin, bi talde osatuko dira, eta talde bakoitzean puntuaziorik altuena duten hirurak dominarako norgehiagoketara pasatuko dira. Ondoren, prozedura normalari jarraituko diote. Horren arabera, talde bakoitzean puntuaziorik altuena duen lehiakidea 1. eta 2. postuetan geratzeko lehiatuko da; eta 2.a beste taldeko 3. arekin lehiatuko da eta alderantziz, salbu eta guztira 5 lehiakide bakarrik badaude; kasu horretan, talde handieneko 2. lehiakideak *walkover* bidez lortuko du 3. postua.

- 5.6.7 Lehiakideen kopurua 11tik 24ra bitartekoa bada, bi talde osatuko dira. Lehen Kataren ondoren, 4 lehiakiderik onenek 4ko bi talde osatuko dituzte. Ondoren, bigarren Katak zehaztuko du hirugarren txandan dominarako norgehiagokan lehiatuko diren 6 lehiakideen sailkapena (talde bakoitzetik 3).
- 5.6.8 Lehiakideen kopurua 25etik 48ra bitartekoa bada, lau talde osatuko dira. Lehen Kataren ondoren, talde bakoitzeko 4 lehiakiderik onenak bigarren txandara pasatuko dira. Bigarren txandan, 16 lehiakide 2 taldetan banatuko dira 2 tatamitan (8 lehiakide talde bakoitzeko), eta bigarren Kata egingo da. Bigarren txandaren ondoren, talde bakoitzeko 4 lehiakiderik onenak (8 guztira) hirugarren txandara pasatuko dira. Hirugarren txandan, 8 lehiakide horiek 2 taldetan banatuko dira (4 parte-hartzaile talde bakoitzerako), eta hirugarren Kata egingo dute. Hirugarren txandaren ondoren, talde bakoitzeko 3 lehiakiderik onenak dominarako norgehiagokara pasatuko dira, eta laugarren Kata egingo dute.
- 5.6.9 Lehiakideen oinarritzko kopurua 8 da talde bakoitzeko; baina lehiakideen kopurua 64 baino handiagoa bada 97 baino txikiagoa denean, 64tik gorako lehiakideen kopurua 8 taldeetan banatuko da (gehienez ere 12 lehiakide talde bakoitzeko).
- 5.6.10 Lehiakideen kopurua 97tik 192ra bitartekoa bada, talde-kopurua bikoiztu egingo da (16 arte), talde bakoitzeko lehiakide-kopuru txikia utziz, baina talde bakoitzeko lehen 4ak hautatuz eta hurrengo txandarako 8 lehiakideko 8 talde (64 guztira) utziz.
- 5.6.11 Lehiakideen kopurua 193 edo handiagoa bada, talde-kopurua berriz ere 32 arte bikoiztuko da, taldeko lehiakideen kopurua murrizteko, talde bakoitzeko lehenengo 4ak hautatuz eta hurrengo txandarako 128 lehiakidetatik 16 talde utziz.
- 5.6.12 Honako taula honek lehiaketaren formatua erakusten du:

5.6.13 Dominarako norgehiagokak: Bi taldeetako irabazleek Urrezko eta Zilarrezko domina lortzeko lehiatuko dira. Azken bi taldeetako bateko 2.a 3.arekin lehiatuko da azken bi taldeetatik bestean, brontzezko bi dominak lortzeko lehian.

5.6.14 Brontzezko dominaren galtzaileak bosgarren postuan geratuko dira.

5.7 KATA-LEHIAKETA 16 URTETIK BEHERAKOENTZAT

5.7.1 Ez dago arau estandarren aldaketa espezifikorik, baina Kata-zerrenda ofiziala mugatu daiteke hain aurreratuek ez diren Katentzat.

6. ARTIKULUA: EPAILEEN PANELA

6.1 RFEK-Daren lehiaketa ofizial guztietan, txanda bakoitzerako epaileen panela ausaz izendatuko da programa informatiko baten bidez. **Europako edo Munduko Txapelketetarako sailkatzeko Espainiako Txapelketen kasuan, panela 7 epailekoa izango da. Liga nazionaletan eta sailkapenekoak ez diren gainerako txapelketetan, panela 5 epailekoa izango da (kasu horretan, lehiakideen puntuazio estra kontuan hartuko da)**

- 6.2 Banakako edozein txandatan, talde bateko lehiakide guztiek epaileen panel bera izan behar dute.
- 6.3 Dominarako norgehiagoketan, epaileetako bat bera ere ezin da izan lehiakideen autonomia-erkidego berekoa, eta ezin du haiekin izan bestelako interes-gatazkarik (bizileku bera...), familia-loturarik (familia politikoa barne) edo kirolari/entrenatzaile harremanik.
- 6.4 Tatami bakoitzean, epaile bat Epaile Nagusi izendatzen da, eta bere gain hartuko du softwareko teknikariarekin edozein komunikazio beharrezko kudeatzea, bai eta epaileen arteko ustekabeko edozein arazo konpontzea ere.
- 6.5 Gainera, antolatzaileek WKFren Kata-zerrendarekin ohituta dauden mezulariak jarri behar dituzte lehiaketa-eremu bakoitzean, txanda bakoitzaren aurretik lehiakideek hautatutako Katak bildu, erregistratu eta zerrenda softwareko teknikariari eraman diezaioten. Tatamiko buruak du mezularien lana gainbegiratzeko ardura.

7. ARTIKULUA: PUNTUAZIOA

7.1 KATA-ZERRENDA OFIZIALA

- 7.1.1 WKFren Kata-zerrenda ofizialeko Katak bakarrik egin daitezke. Kata-zerrenda ofiziala 1. ERANSKINEAN dago.
- 7.1.2 Kata batzuen izenak bikoiztuta daude, ortografia erromanizatzearen ondoriozko ohiko aldaketak direla-eta. Zenbait kasutan, Kata bat izen desberdin batekin ezagut daiteke estiloaren (Ryu-ha) arabera; kasu berezi batzuetan, izen bera, estiloaren arabera, beste Kata bat izan daiteke.

7.2 EBALUAZIOA

- 7.2.1 Exekuzioa ebaluatzen da Kata hasteko agurretik Kata amaitzeko agurrera arte.
- 7.2.2 Aldaketa txikiak egin daitezke, lehiakidearen karate-estiloak (Ryu-ha) erakutsitakoaren arabera.
- 7.2.3 Desgaitasun-motaren ondorioz, egokitzapenak onartzeko modukoak izan daitezke.
- 7.2.4 Egokitzapenak exekutatu ezin diren tekniken ordezkotako aukera gisa erabil daitezke (adibidez, ostikoen ordezkotako teknikak edo gurpil-aulkia altxatzea gurpil-aulkiko kirolarien kasuan, Hikite gurpil-aulkiko gurpilari aldakari egin ordezkotako, eta abar). Biraketak erabil daitezke jauzien ordezkotako kirol-mota guztietako kirolarien kasuan.

7.2.5 Katak jatorrizko Kataren eduki eta ezaugarri ezagunak izan behar ditu.

7.2.6 Adimen-desgaitasunen kategorietako lehiakideek (K21, K22 eta K23 kirol-klaseak) Kata bera egin dezakete txanda bakoitzean; beraz, Kata errepika daiteke. Gainerako kirol-klase guztiek (K11, K12, K30 eta K40) Kata desberdin bat egin behar dute txanda bakoitzean (Kata berdinketa hausteko egiten ez bada behintzat). Kata-zerrenda ofizialeko Katak bakarrik onartzen dira.

7.3 PUNTUAZIO-SISTEMA

7.3.1 Kata-exekuzioa 5.0tik 10.0ora bitarteko eskala erabiliz puntuatzen da, 0.1eko gehikuntzetan: 5.0 izango da egindakotzat jotzen den Kata baten puntuaziorik baxuena, eta 10.0 Kata-exekuzio perfektuaren puntuazioa. Deskalifikazioak 0.0ko puntuazioarekin adierazten dira.

7.3.2 Saillapen-taldeak emandako konpentsazio-puntuazioa (puntuazio estra) epaileen puntuazioari gehituko zaio, kirolariaren desgaitasunak Kataren errendimenduan duen eragina doitzeko (RFEKren Parakarateko Saillapen Arauetan deskribatzen den bezala).

7.3.3 Sistemak puntuaziorik altuenak eta baxuenak ezabatuko ditu:

1. EPAILEA	2. EPAILEA	3. EPAILEA	4. EPAILEA	5. EPAILEA	6. EPAILEA	7. EPAILEA	PUNTU ESTRAK	GUZTIRA
7.6	7.6	8.2	7.7	7.5	7.8	8.1	1.2	40

7.4 PUNTUAZIO-MAILAK

7.4.1 Puntuazioan erabilitako eskalaren aplikazioa bateratzeko, gida hau aplikatuko dugu:

10	PERFEKTUA	EXEKUZIO PERFEKTUA
9 - 9.9	BIKAINA	DOMINARAKO LEHIAKETA MAILA NAZIONALEAN
8 - 8.9	OSO ONDO	GOI-MAILA LEHIAKETA AUTONOMIKOAN
7 - 7.9	ONA	LEHIAKETA AUTONOMIKOAN ESPERO DEN MAILA
6 - 6.9	ONARGARRIA	ONDO EGINDAKOA
5 - 5.9	EZ-NAHIKOA	BAT ETORRI GABE EGINDAKOA
0	DESCALIFICATUA	

7.5 BERDINKETAK HAUSTEA

7.5.1 Irabazlea zehazteko, urrats hauen bidez hausten dira berdinketak: (RFEKren Kata-lehiaketako araudian bezala).

- 1) Puntuaziorik handiena lortzen duena kontuan hartuz gero bi lehiakideen arteko jardueran ezabatutako puntuazioen artean baxuena (biei 7 epaileetatik 6k emandako

puntuazioa kontuan hartzearen emaitza). Ezabatutako en artean gehieneko puntuaziorik altuena.

- 2) Puntuaziorik handiena lortzen duena kontu hartuz gero bi lehiakideen arteko jardueran ezabatutako puntuazioen artean altuena (7 epaileek emandako emaitzak).
- 3) Baliozko puntuazioen artean, puntuazio baxuena batuko da.
- 4) Baliozko puntuazioen artean, puntuazio altuena batuko da.
- 5) Ranking nazionalik altuena (WKF: nazioartekoa) lehiaketaren datan.

7.6 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

KATAREN EXEKUZIOA	EXEKUZIOAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOA KIROL-KLASEAREN ARABERA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Posizioak 2. Teknikak 3. Trantsizio-mugimenduak 4. Timing-a eta sinkronizazioa 5. Arnasketa egokia 6. Kontzentrazioa (KIME) 7. Adostasuna: Estiloko (RYU-HA) KIHON egitearekiko kontsistentzia 8. Indarra 9. Abiadura 10. Oreka 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikusteko desgaitasuna duten kirolariak (K11 eta K12): Kataren orientazio espaziala eta embusen-a (exekuzio-lerroa) 2. Adimen-desgaitasuna duten kirolariak (K21, K22 eta K23): Tekniken arintasuna. 3. Desgaitasun fisikoa duten kirolariak (K30): gurpil-aulkiaren trebetasuna, kontrola eta maniobragarritasuna. 4. Desgaitasun fisikoa duten kirolariak (K40): desgaitasuna dela-eta egiten zailak edo ezinezkoak diren teknika jakin batzuk egokitzea.

7.7 FALTAK

Gertatuz gero, falta hauek kontuan hartu beharko dira:

1. Oreka-galtze arina.
2. Mugimendu asinkronoak, hala nola gorputz-trantsizioa osatu baino lehen teknika bat exekutatzea.
3. Kataren exekuzioa ebaluatzean, epaileek falta oso larritzat –aldi baterako oreka-galera zigortuko litzatekeen maila berean– jo behar dituzte honelakoak: komando akustikoak erabiltzea (edonork egindakoak, baita taldekideek ere), teatralitateak (oinek zapaltzea, zapladak ematea bularrean, besoetan edo karategian) edo arnasketa desegokiak.

4. Kataren exekuzioan gerrikoa gerritik askatzeraino lasaitzea.
5. Kataren exekuzioan aurpegi-babesak aurpegitik atera eta begi bat edo biak agerian uztea.
6. Kataren exekuzioan bestelako ekipo batzuk beren lekutik mugitzea, hala nola zangoetarako uhalak edo kirol-betaurrekoak.
7. Exekuzioaren aurretik denbora galtzea, martxa luzatzea barne, agur gehiegi edo etenaldi luzeak egitea.
8. Kataren exekuzioan lehiakidearen patologia eragin ez duen etenaldi edo geldialdi argia.
9. Oreka-galera argia, erortzea edo berreskuratzeko urratsa egitea eragiten duena.

7.8 DESKALIFIKAZIOA

Lehiakide bat deskalifikatu daiteke arrazoi hauetako batengatik:

1. Kata ez iragartzea, okerreko Kata iragartzea edo alde zuzenetik mahai ofizialari iragarritakoaz bestelako Kata bat egitea.
2. Agurra ez egitea Kataren hasieran edo amaieran.
3. Kata epaileei begira ez hastea.
4. Mugimenduren bat ez egitea, mugimenduak gehitzea edo, bestela, jatorrizko formaren exekuzioa nabarmen aldatzea.
5. Kataren exekuzioan zehar gerrikoa erortzea.
6. Kataren exekuzioan aurpegi-babesak aurpegitik atera eta begi bat edo biak agerian uztea.
7. Epaillei Buruaren jarraibideak ez betetzea edo bestelako jarrera desegokiak (SHIKKAKU).
8. Afekziorik gabeko zangoa erabiltzea Kata gurrpil-aulkian egitean (K30).
9. Kataren exekuzioan zehar entrenatzailearen jarraibideak jasotzea.
10. Saillapen-saioan erabilitako eta onartutako ekipoez bestelakoak erabiltzea.
11. Desgaitasuna faltsifikatzea saillapen-saioan.

Ebaluazioan deskalifikatzeko arrazoiak kontuz tratatu behar dira, koadro kliniko batzuek portaera jakin batzuk sortu baititzakete edo horietan eragina izan baitezakete. Epaillei aukera eman behar zaie bilera bat egiteko (SHUGO), bilera horrek ondorioen bat izateko beharrik gabe. Parakarate Batzordeak laguntza eman dezake une horietan.

7.9 GEHIEGI OSPATZEA ETA ADIERAZPEN POLITIKO EDO ERLIJIOSOAK

- 7.9.1 Lehiakideek agurren zeremonia errespetatzea espero da, exekuzioaren aurretik eta ondoren. Debekatuta dago exekuzioan zehar nahiz exekuzioa amaitu eta berehala gehiegizko edozein ospakizun egitea (belauniko jartzea, adierazpen politiko edo erlijiosoak...), eta EBk protesta-tasarako zehaztutako kopuruaren pareko isuna ezarriko du. Tatamiko buruak edo epaile nagusiak mahai ofizialari jakinaraziko dio.

8. ARTIKULUA: NORGEHIAGOKEN OPERAZIOA

- 8.1 Taldekako kanporaketa-sisteman, lehiakideak zortziko (edo gehienez 12) taldetan esleitzen dira lehiaketa-eremu bakoitzeko, 2 taldetan banatuta.
- 8.2 Txanda bakoitzaren aurretik, lehiakideek hautatutako Kata jakinarazi behar diete esleitutako mezulariei, eta horiek informazioa helaraziko diote ebaluazio elektronikoko sistemaren softwareko teknikariari. Talde baten barruko exekuzio-ordena ausaz zehazten da, lehen kanporaketa-txandari aplikatu beharreko sailkapen oro izan ezik.
- Oharra (RFEK): hurrengo txandetako irteera-ordena aurreko txandan lortutako puntuazioaren arabera izango da.**
- 8.3 Txanda bakoitzaren hasieran, lehiakideak lehiaketa-eremuaren perimetroan lerroan jarriko dira, epaileei begira. (Txanda bat talde bateko lehiakide guztien jarduera oso gisa ulertu behar da). Behin agurrak egindakoan –hasieran “SHOMEN NI REI” agurra eta ondoren “OTAGAI NI REI” agurra–, lehiakideek atzera egingo dute eta lehiaketa-eremutik aterako dira.
- 8.4 Dei egiten zaienean, lehiakide bakoitza hasierako puntura hurbilduko da Kata epaileen aurrean egiteko.
- 8.5 Lehiakidea tatamiaren perimetroraino gida dezake laguntzaile batek (entrenatzaileak edo laguntzaileak). Lehiakidea bere kabuz desplazatuko da lehiaketa-eremuko hasierako kokalekura; laguntzailea ezingo da txapelketa-eremuan sartu.
- 8.6 Kataren exekuzioaren hasierako puntua lehiaketa-eremuko perimetroaren barruko edozein lekutan dago.
- 8.7 Agurra egin ondoren, lehiakideak argi eta garbi iragarri behar du egingo den Kataren izena, eta ondoren exekutatzeko hasi.
- 8.8 Exekuzioaren amaieran –Kataren amaierako agurra–, lehiakideak ebaluazioa iragarri arte itxaron behar du, agurra egin eta gero tatamia utzi.
- 8.9 Talde bakoitzaren amaieran, talde horretako lehiakide guztiak lerroan jarriko dira, eta operadoreak (hizlariak) hurrengo txandara pasako diren lehiakide onenak iragarriko ditu. Lehenengo lauren izena monitorean erakutsiko da. Orduan lehiakideek agurra egin eta tapizetik aterako dira.

9. ARTIKULUA: ERREKLAMAZIO OFIZIALA

9.1 XEDAPEN OROKORRAK

- 9.1.1 Inork ezin die ebazpen bati buruzko erreklamaziorik egin arbitraje-paneleko kideei.
- 9.1.2 Arbitraje batek araudia urratu badu, lehiakidearen entrenatzailea edo ordezkari ofizialak soilik dute baimena erreklamazio bat aurkezteko.
- 9.1.3 Protesta sorrarazi zuen norgehiagoka eta berehala bidalitako txosten idatzi baten forma hartuko du erreklamazioak. Salbuespen bakarra da protesta funtzionamendu administratibo txarrari buruzkoa denean.
- 9.1.4 Arauen aplikazioari buruzko edozein protestak ez du zertan nahitaez eragotzi lehiaketak aurrera egitea, eta entrenatzaileak edo Federazioko ordezkariak norgehiagoka amaitu eta berehala jakinarazi beharko du erreklamazioa egiteko asmoa.
- 9.1.5 Entrenatzaileak / FAren ordezkariak (edo klubaren ordezkariak, liga nazionaletan) eskatuko dio tatamiko buruari erreklamazio-inprimaki ofiziala [2. ERANSKINA]. Espero da hura bete eta sinatuko duela, eta dagokion tasarekin entregatuko diola erreklamazioa egiteko asmoaren berri eman eta hurrengo 5 minutuen barruan.
- 9.1.6 Entrenatzaileak / FAren ordezkariak (edo klubaren ordezkariak, liga nazionaletan) protesta bat beharrezko epean entregatzen ez badu, protesta ez onartzea eragin dezake horrek, baldin eta, Lehiaketa Batzordearen iritziz, atzerapenak arrazoi justifikaturik ez badu eta lehiaketak aurrera egitea eragozten badu.
- 9.1.7 Tatamiko buruak inplikaturako ofizialei buruzko edozein informazioarekin osatuko du erreklamazio-inprimakia, eta berehala emango dio Lehiaketa Batzordeko ordezkari bati. Lehiaketa Batzordeak luzamendurik gabe berrikusiko ditu protesta eragin duen erabakia hartzea eraman duten inguruabarrak. Eskuragarri dauden egitate guztiak kontuan hartuta, txosten bat egingo dute, eta eska daitezkeen neurriak hartzeko baimena izango dute. Erreklamazioa Lehiaketa Batzordeak berrikusiko du; berrikuspenaren barruan, epaimahaiak eskuragarri dagoen protestaren aldeko ebidentzia aztertuko du.
- 9.1.8 Arbitraje Zuzendariak edo Ekitaldiko arbitro nagusiak erreklamazioa zuzenean erabaki eta jakinarazi ahal izango dio Lehiaketa Batzordeari; kasu horretan ez da protesta-tasarik ordainduko.

- 9.1.9 Abian den exekuzio batean funtzionamendu administratibo txarraren kasuan, entrenatzaileak zuzenean jakinaraz diezaioke tatamiko buruari. Era berean, tatamiko buruak Epaile Buruari jakinaraziko dio.
- 9.1.10 Protestak lehiakideen izena eta erkidego-autonomia (edo kluba) jaso behar ditu, arbitratzen ari diren epaileak eta protesta eragin duen alderdiari buruzko xehetasun zehatzak. Estandar orokorren gaineko erreklamazio orokorrak ez dira protesta legitimotzat onartuko. Protestaren baliozkotasuna frogatzearen karga erreklamatzailari dagokio. Tatamiko buruak aurkeztu behar dio protesta Lehiaketa Batzordeko ordezkari bati. Epaimahaiak beharrezko epean berrikusiko ditu protesta eragin duen erabakia hartzera eraman zuten inguruabarrak.
- 9.1.11 Erreklamazioaren egileak RFEK-DAren Lehiaketa Batzordearen arauak ezarritako diru-kopurua gordailutu behar du protestagatik. Tatamiko buruak Txapelketa Batzordeko presidenteari entregatuko dio diru-kopuru hori, erreklamazio-inprimakiarekin batera.
- 9.1.12 Entrenatzaileak edo FNren ordezkariak exekuzioa amaitu eta berehala iragarri behar du protesta oro.
- 9.1.13 Lehiaketa Batzordearen erabakia behin betikoa da, eta Zuzendaritza Batzordeak RFEK-DAko presidenteari hala eskatuta erabakiz gero bakarrik baliogabetu daiteke.
- 9.1.14 Lehiaketa Batzordeak ez du zehapenik edo penalizaziorik ezarriko. Batzordearen zeregina da erreklamazioak epaitzea eta Arbitraje Batzordeari eta Antolamendu Zuzendaritzari araudia urratu duten arbitraje-ekintzak zuzentzeko eskatzea, neurri zuzentzaileak har ditzaten.
- 9.1.15 Protestak abian dagoen kategoria bateko lehiakideak inplikatzeko baditu, lehiakideak parte har dezakeen hurrengo txanda atzeratu egin beharko da apelazioa erabaki arte.

9.2 LEHIAKETA-BATZORDEAREN OSAERA

9.2.1 Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea duten honako kide hauek osatuko dute Lehiaketa Batzordea:

1. RFEK-DAko zuzendari teknikoa, lehiaketa-batzorde horretako presidentetza eta ordezkariak izango dituena.
2. Arbitrajeko Sail Nazionaleko zuzendaria.
3. Parakarateko Sail Nazionaleko zuzendaria.
4. Kirolari bat, dena delako txapelketan kirolari gisa parte hartzen ez duena, RFEK-DAko presidenteari horretarako izendatua.
5. Egiten ari den txapelketa-mota arbitratzeko eskatzen den titulazioa duen arbitro bat, arbitro-lanetan ari ez dena, RFEK-DAko presidenteari izendatutakoa.

9.3 APELAZIOAK EBALUATZEKO PROZESUA

- 9.3.1 Protesta jasotzen duen tatamiko buruaren erantzukizuna da Lehiaketa Batzordea biltzea eta baztertutako edozein protestari dagokion diru-kopurua gordailutzea.
- 9.3.2 Erreklamazioa ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen kontsultak eta ikerketak berehala egingo ditu Lehiaketa Batzordeak.
- 9.3.3 Lehiaketa Batzordeko kide bakoitzak protestaren baliozkotasunari buruzko ebazpena eman behar du. Ezin da abstenitu.

9.4 BAZTERTUTAKO ETA ONARTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

- 9.4.1 Protesta bat baliogabea dela zehazten bada, Apelazio Epaimahaiak bere kideetako bat izendatuko du erreklamazioaren egileari protesta baztertu dela ahoz jakinarazteko, jatorrizko dokumentua "BAZTERTUA" hitzarekin markatzeko, Lehiaketa Batzordeko kide bakoitzak sina dezan eta erabakiaren berri eman diezaion erreklamazioaren egileari.
- 9.4.2 Erreklamazioa onartzen bada, Lehiaketa Batzordea harremanetan jarriko da Antolaketa Batzordearekin eta Arbitraje Batzordearekin, egoera konpontzeko praktikan har daitezkeen neurriak hartzeko, aukera hauek barne hartuta:
- Araudia urratzen duten aurretiazko erabakiak aldatzea.
 - Gorabeherak eragindako norgehiagoken emaitzak baliogabetzea, gorabehera gertatu aurreko unetik.
 - Gorabeherak eragindako norgehiagokak errepikatzea.
 - Arbitraje Batzordeari inplikaturako arbitroak zigortzea azter dezala gomendatzea.
- 9.4.3 Lehiaketa Batzordeak erantzukizuna du moderazioz eta zentzuz jarduteko ekitaldiaren egitaraua nabarmen aldaraz dezaketen ekintzei ekitean. Kanporaketa-prozesua lehengoratzeko da bidezko emaitza ziurtatzeko azken aukera.
- 9.4.4 Protesta onartzen bada, Lehiaketa Batzordeak bere kideetako bat izendatuko du erreklamazioaren egileari protesta onartu dela hitzez jakinarazteko, jatorrizko dokumentua "ONARTUA" hitzarekin markatzeko eta Batzordeko kide bakoitzak sina dezan. Protestaren tarifa itzuli egingo zaio erreklamazioaren egileari.

9.5 GORABEHEREN TXOSTENA

9.5.1 Gorabehera lehenago araututako moduan kudeatu ondoren, Lehiaketa Batzordea berriro bilduko da, eta protesta eragin duen gorabeherari buruzko txosten simple bat egingo du, aurkitu dena deskribatuz eta protesta onartzeko edo baztertzeko arrazoiak azalduz.

9.5.2 Lehiaketa Batzordeko kideek sinatu behar dute txostena, eta arbitro nagusiari eta Antolaketa Batzordeari aurkeztu behar diete.

10. ARTIKULUA: ARAUEN TOKIKO EGOKITZAPENA

10.1 Kata-lehiaketaren araudiaren tokiko egokitzapenak onartu egiten dira lehiaketa nazionaletan, baldin eta egokitzapen horiek abantailarik edo desabantailarik ekartzen ez badute karate-estilo partikularrentzat.

11. ARTIKULUA: LEHIKIDEEEN IZEN-EMATEA ETA AKREDITAZIOA

11.1 RFEK-DAn, parakarate-lehiaketa kategoria hauetan aurreikusten da: Benjaminek haurretara (11 urte arte); gazteak (12-13 urte); Kadeteak (14-15 urte); Juniorrak (16-17 urte); 21etik azpikoak (18, 19 eta 20 urte); Seniorrak (16 urtetik aurrera); eta Beteranoak (35 urtetik aurrera). Beraz, parakarate-lehiaketak egongo dira kategoria horietako lehiaketa nazional guztietan, bai eta Espainiako Kluben Txapelketan ere.

11.2 Kirolari guztiek izena eman behar dute beren autonomia-erkidegoetako federazioen bidez.

11.3 RFEK-DAn izen-emate sistemaren bidez eman behar da izena.

11.4 Entrenatzaileek RFEK-DAk ezarritako eskakizun guztiak bete behar dituzte; adibidez, coach nazionalaren lizentzia eduki beharko dute Espainiako Liga Nazionaletan eta Txapelketan hala jarduteko. Eskakizun espezifikoak ekitaldi bakoitzaren buletinean argitaratuko dira.

11.5 Izen-emate guztiak “zain” izango dira hasiera batean, eta sailkapen-taldeak dokumentazioa berrikustearen mende.

11.6 Autonomia-erkidegoko federazioko ordezkariak bere lehiakideen akreditazioak jaso beharko ditu akreditazio-aretoan, ezarritako egunean eta orduan.

- 11.7 Izena eman ondoren, parakarateken sailkapen-saioa egingo da, kirol-klasea, sailkapenaren egoera eta konpentsazio-puntuazioa zehazteko. Lehiakide guztiek agertu behar dute sailkapen-saioan. Sailkapenari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu *RFEK-DAREN Parakarateko Sailkapenaren Araudia*.
- 11.8 Ez dira lehiatzeko hautagai izango edozein arrazoiengatik deskalifikatu, egotzi edo zigortu dituzten kirolariak.

12. ARTIKULUA: DOPINAREN AURKAKO ARAUAK ETA DOPIN-KONTROLA

- 12.1 Dopinaren aurkako Kodea eta Dopinaren kontrako Mundu Agentziaren debeku-zerrenda RFEK-DAREN lehiaketa guztiei aplikatzen zaizkie. Parakarateko lehiakideek, entrenatzaileek, laguntzaile pertsonalek eta bestelako laguntza-langileek dokumentu horiekin ohituta egon behar dute eta bertako arauak bete behar dituzte une oro. Dopin-kontrola edozein unetan egin daiteke lehiaketan zehar. Espero da kirolariak dopin-kontrolako prozedura guztiak betetzea.
- 12.2 Dopinaren aurkako arauekin eta/edo dopin-kontrolarekin ez kooperatzea arau-hauste larria da; kirolaria lehiaketatik deskalifikatuko dute, eta RFEK-DAREN Dopinaren Aurkako Batzordearen beste zehapen batzuk jasoko ditu.

1. ERANSKINA: KATA-ZERRENDA OFIZIALA

1	Anan	35	Jilin	69	Passai
2	Anan Dai	36	Jion	70	Pinan Shodan
3	Ananko	37	Jitte	71	Pinan Nidan
4	Aoyagi	38	Juroku	72	Pinan Sandan
5	Bassai	39	Kanchin	73	Pinan Yondan
6	Bassai Dai	40	Kanku Dai	74	Pinan Godan
7	Bassai Sho	41	Kanku Sho	75	Rohai
8	Chatanyara Kusanku	42	Kanshu	76	Saifa
9	Chatanyara No Kusanku	43	Kishimono No Kushanku	77	Sanchin
10	Chinte	44	Kousoukun	78	Sansai
11	Chinto	45	Kousoukun Dai	79	Sanseiru
12	Enpi	46	Kousoukun Sho	80	Sanseru
13	Fukyugata Ichi	47	Kururunfa	81	Seichin
14	Fukyugata Ni	48	Kusanku	82	Seienchin (Seiyunchin)
15	Gankaku	49	Kyan No Chinto	83	Seipai
16	Garyu	50	Kyan No Wanshu	84	Seiryu
17	Gekisai (Geksai) 1	51	Matsukaze	85	Seishan
18	Gekisai (Geksai) 2	52	Matsumura Bassai	86	Seisan (Sesan)
19	Gojushiho	53	Matsumura Rohai	87	Shiho Kousoukun
20	Gojushiho Dai	54	Meikyo	88	Shinpa
21	Gojushiho Sho	55	Myojo	89	Shinsei
22	Hakusho	56	Naifanchin Shodan	90	Shisochin
23	Hakusho	57	Naifanchin Nidan	91	Sochin
24	Haufa (Haffa)	58	Naifanchin Sandan	92	Suparinpei
25	Heian Shodan	59	Naihanchi	93	Tekki Shodan
26	Heian Nidan	60	Nijushiho	94	Tekki Nidan
27	Heian Sandan	61	Nipaipo	95	Tekki Sandan
28	Heian Yondan	62	Niseishi	96	Tensho
29	Heian Godan	63	Ohan	97	Tomari Bassai
30	Heiku	64	Ohan Dai	98	Unshu
31	Ishimine Bassai	65	Oyadomari No Passai	99	Unsu
32	Itosu Rohai Shodan	66	Pachu	100	Useishi
33	Itosu Rohai Nidan	67	Paiku	101	Wankan
34	Itosu Rohai Sandan	68	Papuren	102	Wanshu

Egin beharreko Kata jakinaraztean, erabili esleitutako zenbakia. Kataren zenbakia eta izena bat ez badatoz, zenbakia hartuko da jakinarazitako Katatzat.



2. ERANSKINA: KATAKO ERREKLAMAZIO-INPRIMAKIA

ERREKLAMAZIO-INPRIMAKI OFIZIALA**(KATA)****Protesta aldez aurretik ordaindu behar da**

DATA	LEHIAKETA	LEKUA
...../...../.....		

LEHIAKIDEA	FEDERAZIOA

ERREKLAMAZIOAREN DESKRIBAPENA

Orriaren beste aldean jarraitzeko

COACHAREN IZENA:	RFEKren ordainagiri gisa balio du

SINADURA

PANELA	1. EPAILEA	2. EPAILEA	3. EPAILEA	4. EPAILEA	5. EPAILEA	6. EPAILEA	7. EPAILEA
IZENA							
FEDERAZIOA							